

berkei

2005eko OTSAILA,
130. ZENB. DOHAINIK

A photograph of a person walking away from the camera on a wet, paved promenade. The promenade is bordered by a low stone wall on the right, with the sea beyond it. On the left, there is a red-paved area with a white bicycle symbol. In the background, there are hills and a cloudy sky. The scene is overcast and the ground is reflective.

Kandido Uranga
inventarium

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbietta

Itziar Garate

Izaskun Urbietta

Maitane Agirre

Iurre Altzibar

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Belen Golmaio, Abelin Linazisoro,

Joanito Dorronsoro, Haize

Galarraga, Xabier Aranguren,

Karmelo Arroiabe, Gorka Ormazuri,

Xabier Aizpurua, Ibon Aizpurua,

Izaga Garzia, Beñat Fernandez de

Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Jon

Maia, Eguzki Agirrezabalaga, Natur

Taldea, Ander Hormazuri, Aitor

Manterola, Imanol Garate,

Joseba Esnal.

Azaleko argazkia

Aitor Manterola

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

943 86 15 45 tel.

Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN


1136-8594

Baleikek ez du bere gain

hartzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
puntocom	7
ze berri?	
bigarren eskuko liburu azoka	8
elkarriketa	
kandido uranga	11
orain hamar urte	14
gure zumai zarra	
ixabel grazia ezeiza	16
kirolak	
spinning	20
kultura	22
josu waliñorekin hizketan ipuina arte zine forum	
agenda	30



kirola spinning

“Kirol honen oinarria
musikak markatzen
duen erritmoan
pedalei eragitea da.”



Horrelakoa da "..."

Gaur ez da nire egunik onena izan. Esnatu naizenerako sumatu dut ametsen mundutik errealtatera salto egiteko gogo falta. Maiz atsegi-na, aberasgarria den errealtatea horma iragangaitza otu zait gaurko-an. Horrelakoetan bata bestearen atzetik datorrela dirudi: ohetik jaiki ezin eta... autobusa harrapatu ezinik korrika eman ditut goizeko lehenengo pausoak... autobusera arnasestuka sartu eta... aurtengo lan hitzarmena sinatzeko dugunean, txartela garestitu egin dela jakinarazi dit txoferrak...

Getaria bidean itsasoaren baitan tinkatu ditut nire begiak, barre-nean dudan olatua bertan hustu nahian.

Getarian ezagun bat sartu da autobusera, ez dut hitz egiteko gogorik eta bakarriketan jardun du: espekulazioa gora, espekulazioa behe-ra... 45 milioiko etxea erosi izanaren ondorioz dituen arazoak ditu mintzagai -ez da harritzekoa kezkatuta egotea; dena den, behin zuloan sartu denez beste 4 milioigatik furgoneta bat eskuratu duela esan dida-nean, zur eta lur utzi nau.


Zarautzen autopistan sartzearekin batera begirada errepidera zuzendu dut, euria ari du eta izugarria da dagoen trafikoa. Berrian irakurri nuen zenbait zatitan azken urteotan hirukoiztu eta laukoiztu egin omen da trafikoa, eta horri itenbide bat emateko karril gehiago eraikiko omen dituzte... -no comment!-

Blai eginda iritsi naiz bulegora eta ezustean bile-ra garrantzitsu bat dudala jakinarazi didate -eta ni itxura honekin-, bilkura-rako txostena inprimitu nahi eta ordenagailua ez dabil... -Puf!-

Horrelakoetan sistematik kanpo bizitzeko hautua egin dutenak lasaia bizi ote diren galdetzen diot neure buruari.

Lanetik bueltan, supermerkatu baten paretik igarotzean, azken garaian Zumaian dabilen kalegizon bat presaka gerturatzen ikusi dut. Atentzioa eman dit betidanik. Tarteka elkarriketa laburrak izan ditugu eta, bere bizitzaz ezer ez dakidan arren, bizitzaren patuagatik baino gehiago zentzuzko arrazoiengatik egin duela horrela bizitzeko aukera pentsatu izan dut maiz. Denda parera iritsi eta ohizkoa duen lekuan eskean beste bat dagoela ikusi duenean, kopeta ilundu, buelta eman eta presaka joan da beste atari baten bila.

Arratseko haize hotza sentitu dut aurpegian, bihotzean. Buelta eman eta nire bidean jarraitu dut.



Esti Esteibar

dani



Karnabalak

Hala! Gabonak bukatu orduko hasi txun karnabalak:

--Amama! Amama Arritxu! Eukiko txozu gona zarra ta mantala, ezta? --Ane txikiak-- Eske sorginez jantzi behar deu kuadrilan.

--Eh Amama! Nei basajaunan jantziya ingo? --Mikelek-- Erreza da, Amama, saku zarrak josi ta listo!

--Baña zuek ze usten dezue, hau plaza dala o ze! Ez al tzenduen ba dantzari ta pelotariz jun bihar ba?

--Amama, hoiek eskolakuak dia. Geo kaleako beste bat biar deu!

Ai ama! Bat nahikua ez ta ume xixtriñ hauek bi biar omen dizikiñe. Burutik bera jantzi bat bestian atzetik sartzia al dia ba karnabalak? Ta klaro, burutik bera sartze dizikiñen hoxek amama Arritxuk in bihar! Gañia neure seme alabak txun okerrenak; betire:

- Eskau amamai, seguru badakala.

Ta kitto, haxen problema ta buruko miñak jun txun. Kulpak guriak pralle ta monja haxena bialtzeatik. Neska! Garai batian tontokei gutxixokin e bizi gitunan.

Zoritzarrez e naun bakarra. Majina batek esate zian plazan beaxeak e berdin berdin dabilatzala, eztuela karrerik iten seme alabekin; amaman etxia ostatutzat hartuta dakela ta beste hainbat kontu. Izan e, Baleikeko txoko hau dalata hamaika emakume zintzo etortze zaiten, batzuk zoriontzea, beste batzuk eskertzea re bai ta gexenak kejak eta gaxki daben gauzak konatztea. Kontau ezin dianak jasotzeko re jarri ñat buzoi txiki bat plazan, sartu ta eskubita daon txokuan; "Arritxu" besteik etzio-

nat jarri, baño nahi dunak errax bilatuko din.

Ba esate nun bezela, radio makuto baño kontu gexo zikiñat, batzuk kontau eziñekuak, baño konatzekuak beste danak. Gaur bi keja zizkanat, bixak e errax arreglatzekuak.

Lenengua beko plazan daon jolaslekukua den, leno atiak zitxibenat hortakua. Fijatu al tzeate nola ibiltzen dan burnizko atia dinbi ta danba umiak bultzata? Ez ote din iñork biatzik harrapatu? Ate hori kentzia ez den beste munduko lanik, izan e zertako ote zion atia jolasleku batian?

Bigarrena, keja baño bildurra den; izan e Amaia kontu plazan barrena nuan bakoitzian ta grua hoxen azpitan umiak jolasian ikuste izkiñatenian bihotza uzurtze zaiten. Seguruak omen txun ta lasai eoteko esate ñe hortaz dakixenek, baña nei bildurra emate zian.

Karnabalean ez al da guak botatze txuen axkolai taldeik ibili? Hoxei bai, hoxei gustoa ingo nitxizkiñe trajiak, baita axkoak eosi re!



Arritxu

ADIERAZPEN ASKATASUNA

Zumaiaiko SEGI

Abenduko Paola udal aldizkarian, Zumaiaiko Udalak herria txukun mantentzen gastatzen zen diruari buruzko artikuluari erantzun nahi diogu, guztia zentzugabea iruditzen baitzaigu.

Artikulu horrek, alde batetik, zioen herritarrek herria garbi ikusi nahi dutelako gastatzen dela diru hori. Orduan, zergatik dago erdigunea (Erribera kalea, Beheko Plaza, Amaia Plaza eta Paolalde) zubiaz bestaldeko beste auzoekin alderatuz bastante garbiago, argi gehiago rekin eta lorategi politagoekin? Inguru horretako jendeak erdigunekoek baino zikinago eduki nahi al dituzte beraien kaleak, lorategi itsusiagoekin?

Beste aldetik, artikulua zioen kartelak, pankartak eta gainontzeko adierazpenak egunero kale guztietatik kentzeak izugarritzko kostea dakarrela. Gure galdera da, ordea, hau da: zergatik kendu behar dira

egunero? Aspertuta gaude herria txukun izateko aitzakiaz baliatzea izaera politiko jakin batzuk dituzten aldarrikapenak kentzeko eta horrekin herritarren adierazpen askatasuna urratzeko. Hori guztia aitzakia hutsa besterik ez da, kartelak ez baitira ondo kentzen eta itxura ez da oso txukuna gelditzen.

Nahikoa ez gorputz polizialetatik gazteok jasaten dugun eguneroko errepresioa eta Udalak bere jarrerarekin horiei lagundu behar? Argi eta garbi baitaki Udalak kartelak eta pankartak egunero kenduta horretara bultzatzen gaituela, kalean egotera. Beraz, kaleak denonak direla eta aldarrikapen guztien leku izan behar dutela. Udalaren kexaren atzean beste konturik ez dago, kanpoko jendea etortzean Zumaia herri polita eta lasaia dela ikustea. Herria turistentzat eta ez herritarrentzat.

Honekin guztiarekin, Udalari honakoa adierazi nahi diogu:

1. Gure eskubidea dela askatasun osoz, deialdi eta aldarrikapen guztiak kaleatzea.
2. Zuek egunero kartelak kentzearen jarrera adierazpen askatasunaren aurka doala.
3. Prest gaudela Udalarekin adostasun batera iristeko kartelen eta pankarten inguruan (pankartak asteburuetan errespetatzea, kartelak deialdiaren epea amaitu arte errespetatzea...).
4. Azkenik, honela jarraituz gero dirua berdin gastatuko dela. Ez dugula asmorik kaleko aldarrikapenak bertan behera uzteko eta orain arte bezala, eguneroko lana baldin bada ere, kartelak jartzen jarraituko dugula.

ISOLAMENDU POLITIKOAREN AURKA! ESTATUS POLITIKOAREN ALDE BORROKAN! EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA!

Zumaiaiko ASKATASUNA

Euskal Preso Politikoen kolektiboak, beraien izaera politikoa aldarrikatzeko, 2003ko abenduan Kursaleko adierazpenekin lehen urratsa egin zuen; orain, berriz, inoiz egin duen borrokaldirik handiena jarri du abian, estatus politikoa lortzeko, eta, beraz, gatazkaren konponbideko bidean parte hartzeko.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak, eragile politiko eta soziala den heinean, bere ekarpena egin du. Erreferentzialtasun politikoa eta eragile gaitasuna garatu nahi dituzte.

Borroka ekimen honen helburua da ezartzen zaien isolamendu politikoa amaitzea eta preso politikoei hitza ematea. "Euskal Herriak du hitza" aldarrorokorra bada, "Euskal Preso

Politikoei dute hitza", izango da beraien borroka eremuan dagokiena.

Helburua lortze aldera, Euskal Presoak Euskal Herrira! izango da aldarr nagusia. Kolektiboak prozesuan parte hartzea bermatzeko esta-

tus politikoa eskatuko du.

Estatus politikorekin espetxean egoteko modu bat definitu nahi da. Presoen oinarritzko giza eskubide eta eskubide politikoa errespetatuak izango diren egoera, alegia. Bi eremu horietan sartzen diren eskubide guztiak bermatuz gero, estatus politikoa errealitate izango da.

Oinarritzko giza eskubideak: bakartzea amaitzea, mediku asistentzia ziurtatzea, ikasteko eskubidea errespetatzea... *Euskal Presoak Euskal Herrira!*

Oinarritzko eskubide politikak: presoek duten izaera politikoa aitortzea, kolektiboak eragile sozial eta politiko bezala onartzea, kolektiboak izendaturiko mintzakidetzak aintzat hartzea... *Euskal Presoak Euskal Herrira!*



Patxi Aristi
BORROKALDI DATAK
otsailaren 13tik 23ra



Ixiar Arrizabalaga
BORROKALDI DATAK
otsailaren 13tik
martxoaren 5era

dekorazioa

ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Balorazioak



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

H o r t z k l i n i k a

Mozès Hiriart eta SOULIER

Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontzia
- * Implantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Implantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behe. • ZARAUZ • tfnoa: 943-130278



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

astegunetan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

puntocom

konfiantzarik ez

Ba ez. Nahiz eta oraingoan saihsbidea egingo dela agindu, badirudi zumaiaerrek ez dutela agintariengan konfiantza handirik. Ez behintzat webgune bisitatzen dutenek. Inkestan bozkatu dutenen %47,73ak 2007rako saihsbidea eginda egongo denik. Atal honetan izan dira, gainera, iritzi interesgarrienak. Hemen alboan, inkestaren emaitzak dituzue. Azpian, berri, iritzi batzuk.

INKESTA

Saihsbidea 2007rako eginda egongo omen da.

Oraingoan bai		%29,55
Ez zait axola		%22,73
Ez dut sinisten		%47,73

Jasotako botoak: 44

IRITZI BATZUK

Jasotako iritziak

Wali 2005/01/11 - 10:50 AM
Nik zalantza bat daukat: garai batean saihsbide honek bazuen zentzu bat, heririk aparte geratzen zen inguru batean egitekoa zelako. Gaur egun, ordea, saihsbidea egingo den tokia auzo bat da, eskola, denda, eta etxebizitza asko daude bertan. Inori bururatu al zaio proiektua bermikustea?

Bestalde, nik ez dut gauza hauetaz ulertzen, eta hanka sartzeko arriskua sumatzen onartuta ideia bat bota nahi nuke: hiri handitako saihsbideetan oso aruntak dira lur-azpiko tunel modukoak: Gasteiz, Paris, Madril eta antzeko hiritan ikusi ditut horrelakoak. Inori bururatu al zaio saihsbidea horrela bideratzea? Orain estazioetik Ayda-Durex aldera doan bidearen zati bat baliatu daiteke horretarako. Eragin gutxiago egingo lukeelakoan nago, bai auzoaren bizitzan eta baita paisajistikoki eta zaraten aldetik ere.

Torkuato 2005/01/13 - 06:27 AM
Ez dirudi astakeria Walik proposatzen duen horrek. Bere garaien entzun nuen Estazioko etxe gehienak bota egin behar zituztela eta inguru horri altuera eman eta poligono osoarekin berdindu behar zutela. Zer emazagooa tunel artifizial bat jami eta estaltzea baino! Bestela, trenbidearen eta etxeen artean harrapatuta, a ze bariantea!!

Torkuato 2005/01/13 - 06:27 AM

Ez dirudi astakeria Walik proposatzen duen horrek. Bere garaien entzun nuen Estazioko etxe gehienak bota egin behar zituztela eta inguru horri altuera eman eta poligono osoarekin berdindu behar zutela. Zer emazagooa tunel artifizial bat jami eta estaltzea baino! Bestela, trenbidearen eta etxeen artean harrapatuta, a ze bariantea!!

Baleiek edo besteren batek proposamen hau Aldundira edo dagokion tokira bideratzeko modua egingo balu...

al2 2005/01/14 - 01:36 PM

Niri ere proiektu honi saihsbidea deitza gehiegizkoa dela iruditzen zait. Izan ere ez da saihsbide bat. N-634aren bide berria besterik ez da. Zumaia zatitzen jarraituko duena. Egia da muga hori kanporago eramango dela baina hor egoten jarraituko du. Estazioko etxeak eta Torreagan egingo dituztenak "saihsbidearen" beste aldean geldituko dira. Tremu hori ez al da ba Zumaia? A zer saihsbidea!

Noizkoa da proiektu hau? Orain dela 10, 15, 20, 25 urtekoa? Ez al dago zaharkiturik? Beharbada Torreagako biribilguneetik Puntanueta aldera jo beharrean Egurko aldera jo lezake ibai ondokik eta Basusta mendi atzetik joan Beduako biribilgunea arte. Horrela bai izango zela benetako saihsbide bat. Ez dakit, beharbada proiektu hau diseinatzen ari dira hemendik 10, 15, 20, 25 urtera gauzatzeko...

Alberdi
Gizonetzkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

Azokaren txanda

Otsailaren 12 eta 13an egingo da Alondagian bigarren eskuko liburu eta disko azoka. Azoka honetan herritarrek eta zenbait euskal argitaletxe eta diskoetxek emandako liburu, disko, komiki eta bideoak jarriko dira salgai. Ateratako dirua Asiako itsasikarak kaltetutakoei laguntzeko erabiliko da. Ordutegia, bi egunotan, honakoa izango da: goizetan 11etatik ordu bietara eta arratsaldean, 6etatik 9tara.

Azoka girotu eta abian jartzeko ekitaldi polita antolatu da: Asia hego-ekialdeko hainbat herritako irudi eta soinuekin osatutako ikus-entzunezkoa, Rosa Lizaso eta Mikel Bringasen eskutik. Bikote hori iazko udan izan zen paraje haietan, 50 egunez, eta tandem hartuta 2.000 km egin zituzten, Singapuraren hasita, eta Malaysia, Thailandia eta Kanbodian ibili ziren.

Orain suntsituta geratu diren hondartzak eta kostaldeak bisitatu zituzten, inguru haietako tenplu txundigarriak ikusi, hain bitxiak eta urrunekoak iruditzen zaizkigun kulturak ezagutu..., patxadaz, presarik gabe, tandem hartuta. Dena otsailaren 11n ikusteko eta entzuteko aukera izango dugu, iluntzeko 7retan, Alondegiko gela txikian, kabinaren ondotik sartuta.



Batticaloara laguntza

Batticaloa, Sri Lankako ekialdeko kostaldean kokatuta dagoena, 2004ko abenduaren itsasikarak kaltetu zituen eskualdeen artean hondatuenetakoa izan da. Zonalde hau berreraikitzen laguntzera bideratuko da azokatik jasotako dirua.

Euskal Herritik Batticaloa berreraikitzen lagunduko duen proiektu bat jarri da abian, *Lagundu Batticaloa* izenekoa. Gasteizko Udalak jarri du abian Munich-eko Udalarekin batera.

Baleike Kultur Elkartetik beraiekin jarri da harremanetan, laguntza nola bideratuko duten zehazteko. Adierazi digutenez, *Lagundu Batticaloari* proiektuak Batticaloa barrutian lagundu nahi du, ondoko helburuak betetzeko:

- Familiak berregituratzen lagundu
- Etxebizitzak, eskolak eta umezurtzen hezkuntza diruz babestu
- Ospitalea, azpiegiturak eta herri administrazioa berreraikitzen lagundu

Itsasikarak soilik 15 minutu behar izan zituen Batticaloa suntsitzeko. Gutxienez hurrengo 5 urteetan beharko dute laguntza, eta umezurtzek hurrengo 15 urteetan. Hor-taz, *Lagundu Batticaloari* epe luzeko proiektua da.

Baleiketik proiektu honetara dirua bideratzea erabakitzeke garaian honakoak hartu ditu kontutan:

- Euskal Herritik abian jarritako proiektua izatea
- Proiektu lokalizatua da, helburu zehatzekin.
- Ez dago Gobernu Kanpoko Erakundeen kontrolpean.
- Diruaren erabilera zorrotz kontrolatuko da, auditorien bitartez.
- Proiektu publikoa da.



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

Emilio Perez
Elektronika, instalazio eta instalazio
elektroniko salmenta eta konponketa

ADI

HASADI 28
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@euzkalinet.net



Santa Ageda egunean eskean

Urtero bezala, herriko talde bat baserri ibili zen eskean. Jon Maia, Baxakarte eta Unai Gijarro aritu ziren koplari eta trikitiarekin, berriz, Ixiar eta Irati. Goizean Askizu, San Prudentzio eta Getaria aldeko txakolinak dastatzeko aukera izan zuten eta bazkalondoan Zumaia aldeko baserri batzuetan aritu ziren kantuan. Gauean herriko zenbait tabernatan ere egin zituzten saio batzuk, inauteri giroan nahastuta.



“Bi urtetik hamabi urtera herrian ikasteko aukera”

- Ikasle talde txikietan.
- Musika, Ingelesa eta H. Fisiko arloetan irakasle espezializatuekin.
- Teknologia berrienak erabiliz.

Tfnoa: 943 862 046

Email: 012299aa@hezkuntza.net



ARROAKO HERRI ESKOLA

OSO LASAI ETA EUSKARAZ BLAI



BALIABIDEAK

- Ingelesa, Heziketa fisi-koa, Musika, Haur Hezkuntza eta Heziketa bereziko irakaslego espezializatua
- Internet gela guztietan
- Ordenagailuak sarean
- Psikomotrizitate gela
- Ikus-entzunezko gela
- Udal frontoia
- Haur parkea



ZERBITZUAK:

- Garraiorako banakako diru laguntza
- 2 urteko gela
- Jantokia



ESKOLAKO EKINTZAK:

- Programatutako irteera didaktikoak
- Bi egunetako egonaldi didaktikoak
- "Txikiexpress" aldizkari elektronikoa: www.txikiexpress.net
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Kirol sustapen jarduerak: eskalada, esgrima, mendi ibilaldiak...
- Euskararen aldeko kanpainak: Korrika Txikia, Bai Euskarari ...
- Ospakizunak: Olentzero, Santa Ageda eskea, Santo Tomas...
- Eskolen arteko ekintzak: Antzerkigintza, Kantagintza, Bertsogintza, Kirol topaketak...
- Beste ekintza osagarri batzuk: Idazlea eskolan, Galtzagorri, Pianojolea eskolan, Zinea eskolan...

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

2 urtetik 12 urtera



San Isidro, 13
Tel/ Fax-a 943147044
E.mail: 012038aa@hezkuntza.net



“hau da bakarka egin dudan lehen lana, neuk sortutakoa, per tsona la”

Kandido Uranga aktoreak Bernardo Atxagaren "Henry Bengoa Inventarium" ikuskizuna taularatu du. Julene Azpeitia sari banaketaren ekitaldian egin zuen aurkezpena Aita Mari aretoan.

MAITANE AGIRRE ETA IURE ALTZIBAR


Beto Gomez mexikarraren *Puños Rosas* eta Juanma Bajo Ulloaren *Frágil* pelikuletan lanean aritu ondoren, Kandido Uranga bakarkako lan honekin atrebitu da. Hona hemen berak esandakoak.

Zergatik aukeratu duzu "Henry Bengoa Inventarium" lana eta ez beste bat?

Beti egin behar da aukeraketa bat. Beti gertatzen da, badi-rudi, aukeraketa bat egiten denean gainontzeko guztiak albora geratzen direla. Lanean ari nintze-la topatu nuelako esku artean eta oso egokia iru-ditu zitzaidalako aukeratu dut. Interesgarria eta lantzeko modukoa iruditzen zitzaidan. Nik lantzen ditudan atalak lantzeko modukoa. Azken finean, ederra delako aukeratu dut.

Zer erakusten digu antzezlan honek?

Bernardo Atxagak idatziriko istorio bat kon-tatzen da. Nik istorio hori taularatu dut, liburutik eszenatokira eramanez. Hau da istorioa: lagun artetik halako egun batean lagun batek alde egiten du eta denbora dexente daramatenez haren berririk gabe haren bila joatea erabakitzen dute berak idatziriko azkeneko kartazaleko helbide-ra, Hanburgora, hain zuzen ere. Hara joan eta ez dute aurkitzen, desagertuta dago. Lehenago ere beraien artetik desa-gertua zen, Bilbon bizi



zenean. Beraz, lehenago bizi izandako egoeran aurkitzen dira. Bere etxera joaten direnean hutsik dago etxea eta bertako jabeak esaten die bere gauza pertsonalen inbentarioa egiteko, zer duen han utzia, alegia. Orduan hasten dira berak utzitako gauzen zerrenda egiten, hau da, inbentarioa. Honen deskribapena egiten da eta inbentario horretan gauza asko agertzen dira. Gauza horiekin ere bizitza bat, bizitza ikusteko modu bat, filosofia bat... agertzen dira.

Nola definituko zenuke "Henry Bengoa Inventarium" ikuskizuna? Zuk esan duzu, ikuskizuna.

Zergatik zuk bakarrik? Ez al diozu beldurrik eszenatokira bakarrik igotzeari?

Ez da aurrez pentsatzen "nik bakarrik", baizik eta lana ikusitakoan hura egiteko gogo sortu zitzaidan eta hori egiteko ez da besterik behar. Orduan, lan bat egitea da eta ni antzezlea naitenez nire lanbidea egiten dudana kaleratzea, azaltzea, jendeari eskaintzea da eta hori baino ez dut egiten. Eta ez da beldur edo ez beldur, nire lana da. Zenbait lanek bakarkako lana eskatzen dute. Beste zenbait bikotean edo taldean egitekoak diren bezala, hau bakarka egiteko lana da.

Zergatik momentu honetan?

Ez, gauzak ez dira egiten momentu batean, momentu guztia da momentu bat. Bakarrik momentuak bata bestearen atzetik gertatzen direla. Ez dut

pentsatzen momentu hau denik ezertarako baizik eta momentu honetan hau egiten dudala. Bizitzak eramaten gaitu horretara. Bihar ez dakit zer egingo dudana. Hain zuzen ere, hau da bakarka egin dudana lehen lana, neuk sortutakoa, pertsonala, jendeari eskaintzekoa. Hori da gertatzen dena. Lehen eginak ditut hone-lako zenbait lan txiki, baina oraingo hau handixeagoa da.

"Behar bada oso garbi daukat zer nahi dudana lan honekin eta hori lortzen dudala uste dut"

Zer moduzkoa izan da jendearen erantzuna?

Beno, hori ez dagokit niri esatea, baina gustura nago. Jendearentzat gustuko egonaldia izan dela uste dut. Beharbada, oso garbi daukat zer nahi dudana lan honekin (inoiz baino garbiago) eta hori lortzen dudala uste dut, hau da, antzerkita datorrena, antzerkiak irauten duen bitartean horretara bakarrik egotea. Erne, isilik eta adi egotea. Goitik sumatzen dut hori gertatzen dela eta badakit hori gertatzen dela. Nik ez dut inor behartuko lan hau ikustera etortzeko, baina etortzen dena harrapatu nahi dut eta sentitzen dut hori lortzen dudala.

Proiektu hau luzea izan al da?

Prestakuntza ez da luzea izan; behin argi edukita, jarri, egin eta atera. Orain, aurkezpenak geratzen dira eta ez dakit zenbat irungo duen, eskatzen denaren arabera izango baita. Oraingo Astrabudua, Erandio, Astigarraga eta Zumaian egin dut eta hurrengoak Gernika eta Bermeon dauzkat.




Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
french
euskara
englantia
español
catalonian
suomi
basc
català
finnois
français
anglais
catalan
français
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



B. Etzegarai 2, behea
943 86 27 14





Ikuskizuna amaitu eta gero, aktorea eta autorea, Kandido Uranga eta Bernardo Atxaga, luze aritu ziren hizketan

Antzerkian, telebistan, bikoizketan... ikusi zaitugu. Probatzeko zerbait geratzen al zaizu?

Hori dena aktore lanean sartzen da. Aktore lanean, lan egiteko modua da aldatzen dena. Telebista, zinema, antzerkia eta bikoizketa lanak egin ditut, aktore lana den oro. Probatzeko ez zait ezer geratzen, baina kontua ez da probatzea, baizik eta zertan ari zaren, zein lanetan ari zaren, edozertan ari zarela ere nolako ilusioz eta zer nolako proiektutan ari zaren, hori da garrantzitsua. Proiektuaren arabera izango da lan bat gustatzea ala ez, baina nolabait esatearren gutxien gustatzen zaidana telebista da (nahiz eta norberaren proiektua edo hurbileko lagun batena denean gustura aritzen naizen) edozein zokotaraino heltzen delako, ikusleari pentsatzeko aukerarik eman gabe. Nahiago dut esfortzu bat eskatzen duen zerbait eskaini jendeari, beste jarrera bat eskatzen duelako.

Ez al zaizu inoiz gertatu proiektu batean izugarritzko ilusioa jarri eta gero espero zenuena ez ateratzea? Kasu honetan gertatu al zaizu?

Ia beti. Ia beti gertatzen da nondik analizatzen denaren arabera. Artistikoki analizatuz gero, beti geratzen da zerbait hobetzeko. Beste alde batzuetatik begiratuta, ekonomia aldetik, adibidez, inoiz ez da betetzen hasieran espero zena. Baina, beno, lan honekin alde horretatik gustura geratu naiz.

Lan hau bukatu ondoren zer egiteko asmoa duzu?

Lan hau ez da bukatzen, prozesu bat da bukatzen dena. Gerorako proiektuak badituz, baina ezin dut horiei buruz hitz egin proiektuak bakarrik direlako.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 885369

orain hamar urte

urak **nahastuak** al datoz?



"Erabaki honek galera handiak sortuko ditu, eta hondar ugari ekarriko du ibaiaren kanalera". Zumaiaiko Bizirik-ek ere bazuen bere iritzia: "Obra hauek gelditzearen arrazoi nagusia proiektuaren arduradun politiko-koen intransigentzia datza". Barraren auziak oraindik kapitulu gehiago izango zituen.

ONCEko kupoiaren saltzailea den Joxe Manuel Manzisidorri egin genion elkarrizketa 9. zenbaki hartan. "Batzuetan kajero konplejoa dudala iruditzen zait", zioen Joxe Manuelek. Lanaz, ikasketez eta minusbaliatu bezala bizi zuen bizitzaz jarduten zuen Joxe Manuelek elkarrizketa hartan.

Bolanten auzia bizi zen garai hartan, Glorioso San Telmo arrantza ontziko marinelekin hitz egin zuen Baleikek. Garai gogorak bizi ziren itsasoan eta hori Zumaiaiko arrantzaleek bizi izan zuten: "Frantsesen aurka egin ditugun mobilizazio guztiek ez dute ezertarako balio izan. Itsasoan lanean behar genituen bezainbeste egun ez ditugu igaro; diru asko galdu dugu". 10 urteren ondoren, Zumaiaiek ez du itsasontzi bakarra ere.

Kirol munduan ere ez zen urte onena. Futbol, eskubaloi eta saskibaloitik taldeak denboraldi eskasa egiten ari ziren garai hartan. Emaizta txar haien arrazoia entrenamenduak egiteko zituzten zailtasunetan aurkitzen zuten. Gorabehera dezente izan dira azken urte hauetan, baina nahiko egoera ona bizi dute herriko taldeek aurtun. Emaizten aldetik, behintzat.

Baleiken ohikoak ziren atalei zegokienez, Natur Taldeak Azterkosta'94ri buruz hitz egiten zuen (kostaldean ingurugiro heziketa oinarri eta zentzutzat duen kanpaina). Abortoa zenbakitan eta Sex-pol manifestua (1936. urtean Wilhelm Reich alemaniarrek egindako manifestua: zer da kaos sexuala? Eta zer ez da?).

Datorren hilabetea gehiago.



"Azken denboraldian urak nahastuak datoz, baina ez dirudi arrantzaleen onerako denik". Hala hasten zen 1995eko otsaileko Baleike. Planak, hauteskundeak eta beste hainbat gai direla-eta urak nahiko nahastuak datozela dirudi, eta ez arrantza-leentzat bakarrik. Beno, goazen harira...

Barrako obrak hizpide ziren 1995 hasiera hartan. Euskal Auzitegi Gorenak barrako obrak geldiarazi zituen Zumaia Bizirik-ek aurkeztutako errekursoa onartu ondoren. Ingurumenean izango zuen eragina neurtzeko ikerketa falta zela eta gelditu ziren obrak. Ricardo Peña alkateak zioenez,

**TOMAS
TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16


AIZPURUA
LIBRERIA
RU
DEN
D
A

Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



**Mota
guztietako
altzariak**

Xanti Osa

Armaia plaza, 7
tallerra: 943 860914
denda: 943 862385

inauterietako **belarriak**

O SAGAIK,
4 laguntzat:

4 arrautza
100 gr gurin
750 gr irin
Kopa bat anis
Zorro erdi legamia
Gatza eta azukrea

Beñat Fernandez
de Arroyabe
Sukaldaria



Nola prestatu:

Urtu gurina. Arrautzak irabiatu ahala, bota pixkanaka gainera, eta ondoren gatza, likorea eta legamia ere bai. Dena ondo nahastu, masan, eta utzi 90 minutu geldirik. Mahai gainaldean bota olio pixka bat eta zabaldu masa gainean. Gero, hartu pusketa bat eta zabaldu ondo eskuekin eta arrabol batekin; bitartean, paelera bota olio asko eta berotu; ondo berotuta dagoenean, bota pusketa, eta bi sardexkarekin forma egokia eman. Frijituta-koan, atera erretilu batera eta gozatu azukrearekin. On egin!

ILEAPAINDEGIA
TRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37



Baselri Auzoetia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



“Danaz enteratzen ginan umiak, beti kalia ibiltzen ginan-eta”

ABELIN LINAZISORO

Aurrekoan paparrean bandera espainol txikixa eraman behar izaten zenuela esaten zenuen. Hori ibiltzea zumaiar baten agindua izango zen, ba?

Bai. Eta egia esango dizut. Eta askoei esan dixuet hau, e? Ni gizon horren entierroa ez nintzala jungo. Gizon horrei hartu nixon koajia! Dana gure izeko Mari Kruzetik izan zan. Gure izeko hemendik bialdu zuten (izekon gizona gure osaba Antonio Perez aurrea jun zalako) bi umekin. Osaba Antonio Perez frentera jun zanian, izeko Mari Kruz gure amak etxera ekarri zun. Bi umekin, Antonito (5 urtekoa) eta Manolito (3 urtekoa). Beste zumaiar pila batekin batera herritik bialduko zuten abixua jaso zunian, Manolito nahiko gaixki zeon diarreakin, eta Ajuria medikuak esan zixon: ¡Mari Kruz! ¡Vete donde ese hombre y dile de mi parte que se va a morir el niño! ¡Así no se le puede sacar a este niño! Jun da gure izeko Mari Kruz gizon horrena, horretan gure izekok bazekin arpeixa ematen, eta gizon horrek erantzun omen zixon: ¡Bah! Ya te encontrarás con Antonio Pérez y Antonio Pérez te curará al niño. Hara!



Nik hori hartu nun! Bene-benetako penakin! Gizon hori izan zan, bai. Ez zeon halakorik Zumaixan.

Beste Konturik?

Bai. Hamen Goiko Plazara jende pila etorri zan behin. Falangistak zian. Beren fusilakin da-eta jarri dia komentuko zulo horretan belauniko aurreko etxeari begira. Kalia eta ataixan geunden ume danak etxera bialduak izan ginan. Ume danok plaza libratu gendun, baina balkoitik eerki ikusten gendun dana. Falangistak makurtuta fusilakin etxea apunta-

tzen jarri eta... zer izango eta... Ba al dakizu zen zan? Milagrosek nola dauka pelukeixa? Ba, falangistak hor euki zuten ofizina eta nonbait kortina moitzen ikusi eta zea, barruan espia bat ote zeon beldurrez kaleko ume danak etxera. Eta zea espia! Haiziak moitu zun kortina! Horixe. Orduan gure izeko Mari Kruz gurian zen umiakin, eta aiantamentuan guardixa eiten zuten reketeak, zumaiarrak, ikusi dute izekon etxetik gure etxera trastiak karriatzen, eta auskalo zer pentsatu zuten. Kontua da etxe guztia errejistratu zigutela.

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia



ert
informatika

tresna digital
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

Dalac
COMPUTER

Betiko kontua.

Izan ere, oain hasi pentsatzen eta esaten dezu: Zenbat txarrikeri ein du jende honek. Gure izekon traste danak gure ganbara jun zian eta hauek nonbait pentsatu zuten gure osaba Antoniok urrea zeukala ixkutatuta, edo auskalo zer. Honela, ba, etorri dia frankista hauek, dena errejistratu dute, eta, zer harrapatuko eta, osaba Antonion gabardina, traje-buzo bat, Felipe Perezek (osaba Antonion anaixa) Canariastik bialdu zixon erretratatzeko makina eta zilarrezko petaka bat. Eta askotan etorri zian gure etxera, e? Entradan bi eoten zian, goixan beste bi eta gorago beste bi. Errejistratzera beti. Eta gure amak atea ez bazun irekitzen, gizon bat ekartzen zuten atea kanpotik irekitzera. Zurrumurrua atera zuen, nonbait, gure osaba Antoniok zeozer zeukala gordeta. Hala ba, aldegin zutenian, hasi da gure ama begira eta, ene!, gabardina harrapatu! Petaka eta makina ere bai! Gure amaren pena! Eta hala, denda baten onduan negon egun batian, rekete batek beste bati esan zixon: ¡Menuda gabardina que te has hecho! Eta beste honek: Debe de ser de Antonio Pérez. Eta nik dana aitu. Etxera etorri eta izeko Mari Kruzei esan nixon. Eta, nere rekete hori, kasualidadia, frentean hil zan. Enteratu naiz eta esaixot amari: Ba al dakizu



*“Orduan platanoak
lastuakin eindako
farduetan eoten zian.
Aibadio! Pardela! Hura
sakeoa ein genduna!
Kolkuan sartu eta
Bedua gainera jun
ginan.”*

zein hil dan? Honelako. Eta gure amak: A, bai, e? Ba, Jaungoikuen kastiguala! Izan ere, danaz enteratzen ginan umiak, beti kalia ibiltzen ginan-eta. Ba, rekete hau frentera jun baino lehen pasatu da kaletik eta aplikatu da gure ama leixoan eta... zer marruak egin zizkon reketeari! Diarra ein zixon, e?

Batzokiko kontuez akordatzen al zara?

Gu oso batzoki zaleak ez ginan, baina jun izandu ginan. Hamen Zumaixan zeuden: Batzokixa, kasi-noa (oain Pulpo dagon tokixan), eta karlisten etxea. Aginagaldene-ko (orain Trapaia) aurrean bazan etxe bat Juanito Alberdi bizi zana, ba, hortxe zan karlisten etxea. Gure osaba Antonio republikanoa zan eta kasinoan ibiltzen zan, eta gu umetan izeko eta osabakin kasi-nora juten ginan.

Hirurak Erribera kalean, orduan. Eta komunistena ere bai. Oain nola dauka Iruretak erropa denda? Ba, hortxe.

Gerra ondorenean zer? Gosea galanta.

Lehen hasi zara kontatzen estazixora joaten zineteneko. Kontaidazu orain. Gose denboran, 13-14 urtekin, estazixora juten ginan. Han platanoak, txokolatea



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

eta horrelakoak eoten zian gordeta. Ixkutuan. Guk jakiten gendun. Behin batian, San Iñaxio eguna zan, neska kuadrila bildu eta jun gea estazixoa. Bagoi batean fardoka bat platano bilatu gendun. Orduan platanoak lastuakin einda-ko farduetan eoten zian. Aibadio! Pardela! Hura sakeoa egin genduna! Kolkuan sartu eta Bedua gainera jun ginan. Ihesi eiten gendun, e? Ez pentsatu herrixan sartzen ginenik. Bedua gainera juten ginan beti. Han jarri eta bai platano pila jan ere! Gose denborako kontuak. Nik oain pentsatzen det obrero beaixek ostutakoak izango ziala. Ostu eta bagoian ixkutatu. Orduan dana ferrokarrila zan, ba. Ez da oain bezela, dana kamioia. Horreatik juten gina gu estazixora. Beste behin Donostitik ihesika etorri zian hiru lagunekin gaudela, hauek Angeles Ape-rribaen lagunak zian, Patxiku Bixineko lehengusuak, hauetako batek esan zigun: Algarroba bagoi bat ailegatu da, Kinttelentzat. Santandertik ekartzen zun honek. Eta guk: Goazen! Jun gea algarroba bila eta, ene! Hura zeinek jaten zun! Baina hari ere guk kaska ein! Ezin jan ordea! Baba beltza baino gogor-rrago zian. Pollollona boiluak harrapa-tzera ere garai hontakoa izango da.

Razionamentuko konturik?
Razionamentuko kartila bat gendun.
Akordatzen naiz behin, urte berritan-



*“Oaintxe etortzen zian
gustoko ez gendun
mutilak eta guk:
Somos Hijas de María
esan eta bale. Baina
gustokoak! Hauei
baietza, e?”*

edo, baba eman zuela. Nik uste det herri guztixan baba jan giñula. Urte berri egunean baba! Egixa, e? Hara-gixentzako ere tarjeta gendun. Ni Txintxoenea junda nao gazte askoik goizean goizo, bostetan-edo, kola eitera. Txintxueneko entradan ixkutatu eta Txinbi (1) pasatzen zanian, bazetorren Txinbi! Atea itxi eta danok aguanta barruan. Ez zigun lagatzen, ba, kalia kola eiten. Nonbait denda irekitzen zanean jun behar zan gauzak erostera. Txinbi urrutiratzen zanian. Aldegin din! Aldegin din! Eta berriro atea ireki.

Laga ditzagun gose kontuak. Zuek 18-20 urterekin jai eguna nola ospa-tzen zenuten?

Dantza pranko eginez! Beheko Plazan. Guk Beheko Plazatik ez gendun erten-tzen. Bandakin dantza eitea asko gusta-tzen zikun. Gero, neguan, Goiko Plaza-ra orkestina etortzen zan. Elgoibarrekoak -edo, Umore ona uste det zala. Zeozer kobratu eiten zuen gainea. Perrondi bat edo hiru perrotxiki. Arratsaldean Amaya zinera jun, zinetik irten eta dantzara! Zer jende pila sartzen zan orduan plazan! Ene! Eta guk jota fuego! Oaintxe etor-tzen zian gustoko ez gendun mutilak eta guk: Somos hijas de María, esan eta bale. Haixei kalabazak. Baina gustokoak! Hauei baietza, e? Gu zazpi-zortzi neska baginan eta geure artian zein zeinekin

(1) Txinbi hau, Juan José Zabala, Udaleko txaperoen burua zen. Mundu guztiak bezala honek ere ezizena zuen.



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



dantzara erten erabakitzen gendun. Eta bat bagendun, ene!, etortzen bazikon mutilen bat oso nerbiosa jartzen zan eta mutilari: Ez! Ez! Ez! Tentsio baten jartzen zan! Hoxei ez! Hoxei ez! Eta harekin dantzan ari zan lagunak, somos hijas de María, esan behar. Beheko Plazan bandakin oso pozik ibiltzen ginan. Arratsaldeko zazpiretan dantzan hasi eta hamarretan etxera.

Gaueko zinera-eta ez al zineten joaten?

Ezta pentsatu ere! Bueno, inoiz jun izan ginan, baina gauza arraro bat bezela.

Herriko festetan?

Dantzan. Ene! Zenbat dantza eiten gendun guk! Bai sueltuan eta bai agarrauan, e? San Telmo eguna festa txikixa izaten zan, baina hiru gabeko dantza izaten gendun. Eta moilan, e? Ez kofraiko plazuela zuloan. Moilan batetik bestera ixa zine Maitenaino. Bezperan hasi, San Telmo egunian segi eta San Telmo bigarren gabian bukatu. Oain San Telmo bigarrengoa kenduta dao. Dantza ez da hainbeste eiten. Baina gure dibertsioa horixe zan. Dantza eitea.

Hondartzara-eta joaten al zineten?

Umetan ez. Behin, San Telmo egun baten, Itzungo plaira zigarroak erretzera jun ginan. Ixkutuan. Txorteko zigarroak

zian, txikixak, beltzak eta makatzak. Saltaka batean Itzunera zigarroak erretzera! Mutil batek eman zigula uste det. Neska koxkorak ginan oaindik. Beste batian, oaindik oso gazteak ginala, bi neskak ein degu dantzan bi mutilekin Beheko Plazan. Gure ustetan ixkutuan arbol haundi baten kontra. Zeinek ikusiko eta Faustiña Yeregin iloba batek. Faustiña hau Hijas de Maria-ko presidententa zan. Handik hiru-lau egunera

gure amak: Zer zan? Eta nik: Hau eta hau. Ba al dakizu amak ez ziala errietikan ein? Nik amari esan nixon: Ama, nik dantzan ein ingo det, e? Oso dantza zalia nintzan, ba. Alla kuidaos! Ni ez nijoa gehixo Hijas de Maria-ra, amari. Ama konforme. Medalla entregatu ein behar izaten zan eta halaxe ein nun. Manolitari ere ez zioten errietikan ein itxian. Baina Manolitakin dantzan ein zun mutilaren amak harrapatu du kalian eta: Kuidadito! Gure mutilakin dantzik ez ein, e! ;Sois unas pájaras! Gainetik gaixtoak gu. Beti guk kulpa.



Zinera 14 urte arte ez zineten joango, ezta?

Lehen hasi ginan. 7-8 urtekin Don Wenceslaok zinia botatzen zigun. Infanta. Mutua. Jai arratsaldetan. Baina Maitena-ra ere juten ginan. Bazan amama bat, Maritxu Karrillonekoa, eta nik ez dakit harekin amestadia hartu nun edo bea errukitu, baina,

beno, hark gona fruntzitu haundi-haundixa ibiltzen zun, garai hartako amama danak bezela, eta ni haren aldamenara jun, heltzen nixon, berak eskutik heltzen zian eta pega-pega einda harekin batera, txirrist, barrura debalde. Zine Amaya gero hasi zan. Guk 14-15urtekin. Amayak altaboza jartzen zun eta arrankplako koxka dana jendez beteta eoten zan. Zinera sartu baino lehen kanta haixek aitzen eoten ginan.

Kapaia
Zinema

Erribera Kalea 20750 ZEMAJA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

spinning-a kirol arrakastatsua

Azken egunetan asko entzun da spinning hitza. Kirol mota berri baten izena dela jakitean, gure izaera kuxkuxeroa asetzeko, Zumaiaiko kiroldegirantz abiatu gara.

Asier Agirre irakasleak esan digu aurten martxan jarri den ekintza dela, eta herrian izan duen harrerarekin oso pozik daudela. Hona hemen kontatu diguna.

IZASKUN URBIETA

Spinning, cycling, indoor cycling... era askotan adieraztea dago kirol hau, baina dena berdina da, azken finean. Kirol mota hau orain dela 15-20 bat urte sortu zen Ameriketako Estatu Batuetan, ia *fitness* guztia bezala. Euskal Herrira, aldiz, orain dela oso urte gutxi heldu da, baina arrakasta erabatekoa izan da.

Zumaian, aurten ipini dute eta iraila guztian jendeak debalde probatu ondoren, *spinning*-eko saioak ematen hasi ziren. Hasieran 15 bizikleta ekarri ziren, baina jendearen eskariari erantzuteko beste 15 bizikleta erosi zituzten.

Kirol honen oinarria musikak markatzen duen erritmoan pedalei eragitea da. Noski, musika aldatuz doa eta, horrenbestez, pedalei eragiteko erritmoa ere azkarragoa edo motelagoa izango da.

Bizikletak estatikoak dira, baina

berezitasun batekin: erdian, gurpil baten antzeko tresna bat dute, erresistentzia handiagoa edo txikiagoa jartzeko erabiltzaileak berak. Hau da, gurpil hori mugituz gero, gogortu edo arindu egiten da pedalei eragitea; hortaz, erresistentzia eta zailtasuna handiagotu edo txikiagotu egiten dira.

Azken finean, kirol honek bi alderdi hartzen ditu kontuan: musikaren erritmoa eta bakoitzak jartzen dion erresistentzia.

Spinning-eko saio batek 45 minutu irauten ditu. Hasieran berotzen hasteko, poliki hasten dira pedalei eragiten, musika erritmo lasaian. Ondoren, saioa zailtzen hasten da eta hainbat ariketa egiten dituzte, hori bai, guztiak bizikleten gainean. Irakasleak gidatzen ditu saioak eta berak esatean egiten dituzte erritmo eta erresistentzi aldaketak. Kirol hau egiteko modu desberdinak daude:



eserita, hankak pixka bat tolesturik, tente eskalatzen... Horiez gain, *sprint*-ak eta igoerak ere egiten dituzte. Azkenik, amaitzeko, estiramentu batzuk egiten dituzte bihotz taupadak jaisteko.

Kirol hau praktikatzeko ez da inongo dohainik behar. Hau da, ez da beharrezkoa eliteko kirolaria izatea. Edozeinek egin dezake: gizon zein emakume, zahar nahiz gazte, kirolari edo ez kirolari izan. Lehen esan dugun moduan, bakoitzak duen egoera fisikoaren arabera edo ahalmenaren arabera sartzen dio erresistentzia handiagoa edo txikiagoa.

Zumaian, adibidez, 18-60 bat urte bitarteko jendea dabil eta guztiek klase berean ibiltzen dira, sexu edo adin bereizketarik egin gabe.

Emakumezko gehiago

Spinning-a praktikatzen duten gehienak gizonezkoak dira, baina Zumaian,



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323


Ortega y gasset, 1



SIWA
Belardenda

Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



Arkupe

Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



ONURAK ETA KALTEAK

Kirol hau oso onuragarria da, arrazoi hauengatik:

1. Bihotzak egiten duen gastua, ekonomia. Atsedenean, bihotz taupaden kopurua jaitsi egiten da.
2. Oxigenoa kontsumitzeko gaitasuna handitu egiten da.
3. Oxidatze metabolikoa hobetu egiten da.
4. Osasun kardiobaskularra hobetu egiten da, eta hipertentsio, barizeak, arteriosklerosi eta abarri aurea hartzeko balio du.
5. Indarra, erresistentzia eta potentzia handitu egiten dira, batez ere hanketan.
6. Autoestimua areagotu egiten da.
7. Modu dinamiko eta dibertigarrian lan egiteak pertsonen arteko harremanak hobetzea dakar.

Sor ditzakeen kalteei begiratuta, kirol hau behar bezala egin ezean, zenbait arazo ekar ditzake, adibidez gerrian edo bizkar hezurreen. Baina ondo eginda, ez dago inongo arazorik. Aitzitik: **aerobic praktikatzen zuen jende asko hemen hasi da, kirol honek ez baitu inongo kolperik lurrean eta mugimendu ziklikoa izatean.**

bitxikeria moduan, alderantzizko kasua gertatu da. Lehenengo hiru hilekoan %80 emakumezkoak ziren; bigarren hiru hilekoan gauza pixka bat aldatu egin da, baina oraindik emakumezkoen nagusitasuna erabatekoa da.

Hirugarren hiru hilekoan berdina ez gertatzeko, monitoreak gizonetako gehiago animatu nahi ditu kirol hau egitera. Bere iritziz, gizonetakoek aurreiritzi asko dituzte kirol honetaz:

aerobic-en antzekoa dela, nesken gauza dela, bizikletan ez direla nekatuko eta abar. Baina horiek guztiak topikoak baino ez dira, eta probatu duten guztiak oso gustura gelditu dira.

Bada eragozpen bat, ordea: *spinning*-a egiteko erabiltzen duten gela beste gauza askotarako ere ibiltzen denez, bizikletak alde batetik bestera garraiatzen ibili beharra daukate. Baina udaran kiroldegian 2 gela berri

egin behar dituzte eta bat *spinning*-arentzat izango da eta arazoa erabat konponduko da.

Beraz, kirol berri hau arrakasta handiarekin ari da sartzen Euskal Herriko kiroldegietan. Monitoreak dio ederki pasatzen dela klaseetan, guztiz atsegina eta dibertigarria delako. Horrela, ahal duten guztiak animatu nahi ditu, baina batik bat gizonetako.

AITA MARI
kafetegia

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaira

garraioak kamioia baskulagaria
garaiak: 15m-16m

GARRAIOAK
Asensio Artetxe Iturbe

Tel: 943 55 / 189 / 655 / 706 55 /
Iruñea, 5 2A (Zumaira) • Aitzpilgorta, 161 (Mendak)

gofi
haur jantziak

Amaia plaza z/g Tel. 943 860959

josu waliño julene azpeitia ipuin lehiaketako zumaiarren sariaren irabazlea

"ordenagailuek eta internetek erraztu eta lagundu egingo dute literatura"

IMANOL AZKUE

Josu Waliñok irabazi du aurtengo Julene Azpeitia ipuin-lehiaketako zumaiarren saria. Ez du lehenengo aldia, ordea: lehendik ere sari berbera bi aldiz irabazia da, eta beste batzuk ere bai (tartean, Durangoko "Julene Azpeitia" lehiaketa). Uzta ona, ezbairik gabe, urtean ipuin bat idaztea helburu duen informatikariarentzat...

Durangon, Zumaian... Honezkero ondo jakingo duzu zein zen Julene Azpeitia, ezta?

Beste izen bat duen sariren bat ere irabazi beharko dut, bestela susmagarria gertatuko da! Egia esanda, Durangoko sari banaketan irakurri nuen lehenengoz haren historia. Han ere liburuxka bat kaleratzen dute saritutako ipuinekin eta bere biografia bertan agertzen zenez irakurri egin nuen.

"Josu Waliño, idazlea" ikusi dugu, elkarrizketa batean...

Titulu ponpoxoegia iruditzen zait ipuin batzuk idatzi izanagatik. Etxean bazkaria prestatzeagatik ez naiz sukaldaria, astean behin lagunekin futbolearen aritzen dena

futbolari ez den moduan. Kazetarien kontuak dira horiek.

Azaldu labur-labur zer kontatzen den *Berriz erabil nazan*- ipuinean...

Ez da erraza labur azaltzea... Bururatutako xelebrekeria baten inguruan garatutako istorioa da. Gauzak berriz erabiltzearekin obsesionatuta dagoen agure baten istorioa kontatzen du.

Informatikaria zara. Ordenagailuak eta Internetek erraztu edo akabatu egingo dute literatura?

Zalantzarik gabe, erraztu eta lagundu, gainera. Internet oso informazio iturri ona da erabiltzen jakinez gero, eta niri, behintzat, lagungarri egin zait idazterakoan beharrezkoa nuen dokumentazio bilatzeko. Eta literatura maite duenarentzat liburuak aurkitzeko toki ezin hobea da. Munduan zehar argitaratu den edozein liburu topa daiteke bertan, eta muga asko hausten dira.

Etorkizunik ba al du liburu elektronikoa?

Bai, noski. Baina erabilera zehaztu beharko zaio horri ere. Ez dut uste lite-



"Asko irakurtzen dut, baina denbora pasa moduan, erlaxatzeko. Beraz, entretenituko nauten liburak gustatzen zaizkit"

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

CROISSANTERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

ratura irakurtzeko oso baliagarria denik, ezin baitu ordezkatu paperaren goxotasuna, baina paperak eskaintzen ez dituen aukerak zabalduko ditu honek. Adibidez, multimedia erabiltzea liburuen osagarri, edota norberak berari komeni zaion liburua osatzea handik eta hemendik kapitulu desberdinak elkartuz. Tirada txikiko liburuen bidea ere zabalduko du, kostuak asko jaisten direlako.

Xuxenak (ordenagailuko zuzentzaile ortografikoak) hitz batzuk azpimarratu egiten dizkit: ikutu, euskera...

Andu Lertxundik esan ohi du Xuxenek ez duela balio literatura idazteko. Nik uste arazoa ez dela Xuxen, euskara batuaren zurruntasuna baizik. Nik ipuin bat idaztean euskara "xuxena" erabiliz gero, inpresioa daukat hotz geratzen dela, baina kaleko hizkuntzaz idatziz gero ere ez dago ondo. Norberak jarri behar dizkio mugak, eta idazten duenaren esku dago euskararen erabilera zuzenaz zer ulertzen duen erabakitzea.

Literatura irakurtzean, zer estimatzen duzu gehien?

Liburuarekin gozatzea. Eta era askotara gozatu daiteke: dibertitu egiten naudelako, deskonektatzen laguntzen didalako, hizkuntzaren erabilerak liluratzen naudelako... Nik asko irakurtzen dut, baina denbora pasa

moduan, erlaxatzeko. Beraz, entretenituko nauten liburuak gustatzen zaizkit. Batzuentzat liburu on batek, ona izateko, sakona eta irakurtzen ahalegin bat eskatzen duena izan behar du. Agian hala izango da, baina ez da nire estiloa.

Eta zure ipuinetan? Zer zaintzen duzu bereziki?

Ni beti saiatzen naiz irakurleak espero ez duen buelta bat bilatzen, espero ez duen zerbait eskaintzen. Irakurleak ondo pasa dezan nahi dut, eta ipuina gozatuz irakurri duen sentsazioarekin amaitzea.

Zein pauso egiten dituzu ipuina idazten hasten zarenetik entregatzen duzun arte?

Idea bat ipuin bihurtzea erabakitzen dudanez, buruan lantzen joaten naiz.

Tarteka, askotan konturatu gabe egoten naiz horretan pentsatzen, edo ipuinerako behar nituen gauzak etortzen zaizkit. Pixkanaka forma ematen diot, eta nahiko landua dudanean paperean idazten hasten naiz. Aurrena eskuz egiten dut, eta ondoren ordenagailuan bigarren buelta bat ematen diot, berri datzi ere egiten dut askotan. Hor idatzitakoa berriz paperean zuzendu, iritzi batzuk eskatu eta behin amaitutzat ematen dudanean buelta gehiago ez ematen saiatzen naiz.

Umezain-lanetan ideia bikainik sortzen al da?

Egia esan, bai. Aita izateak mundu berri bat deskubritu dit, ezagutzen ez nituen gauza asko irakatsi dizkit semeak, eta horrek burura gauza asko ekarri dizkit. Eman dizkit, bai, ipuingintzara-



Alberto Ladron Arana eta Josu Waliño sari banaketa ekitaldian

ilarfi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

OIKIA

943 147683

ko ideiak, bikainak ez dakit, baina gauza berriak sortzen dira.

Urtean ipuin bat idaztea omen duzu helburu... Ez al da gutxitxo? Edo gehitxo. Depende egunak zertara-ko ematen dizun. Nire kasuan, lana dago, familia dago, bestelako konpromisoak ere bai... ezin denera iritsi.

Gomendatu hiru liburu, irakurtzeko, Baleike-ko irakurleei

Ezinezkoa da horrelako zerrenda murritza prestatzea. Baina badira bereziki maite ditudan bi liburu: García Marquez-en edozein liburu gomendagarria da, baina *Cien años de soledad* hautatuko nuke, liburu batek bikaina izateko behar duen guztia duelako. Eta maila askotan oso antzekoa den liburu bat da bigarrena: Tolkienen *Eraztunen jauna*. Ez dirudien arren, bi liburu hauek badute harreman oso estua: biak dira lan bikainak, biek garatzen dute idazlearen mundu pertsonala eta bietan egiten den hizkuntzaren eta narrazioaren erabilera maisu-lana da niretzat.

Goazen kontrako muturrera. Egongo da, ba, ilusio guztiarekin ontzat erosi zenuen libururen bat, irakurtzean izugarritzko desilusia eragin dizunik, ezta?

Bat, ez. Asko! Eta, alde horretatik, kezka berezia sortzen dit euskaraz argitaratzen diren liburuen kasuak. Nik

idazten dudana apurra euskaraz idatzi arren, ez dut ia irakurtzen euskarazko literaturarik, gure hizkuntzan argitaratzen denak ez naudelako erakartzen. Euskal literaturan gustuko liburu gutxi topatu ditut, baina, horrez gain, ez dut ulertzen literatura euskarara itzultzeko erabiltzen den irizpidea. Ahalik eta jende gehienak euskaraz irakurtzea helburu izanik, zergatik ez dira itzul-

*“Cien años de soledad
eta Eraztunen jauna
gomendatuko nituzke;
bi liburuek badute
harreman oso estua”*

tzen gaur egun publikoak eskatzen dituen liburuak? Hau da, iazko boom literarioa "El código DaVinci" izan bazen, zergatik ez da euskaraz saldu? Edo John Grisham edo Ken Follet bezalako idazleen liburuak. Ez direla onak? Ados. Baina jendeak hori eskatzen du. Irakurle arruntak ez ditu Capote, Coetzee, Bukowski eta horrelako idazleen liburuak irakurtzen, nahiz eta horiek ere, dudarik gabe, euskaraz egon behar diren. Badirudi eus-

karaz argitaratzen den literatura goi mailako publikoari zuzentzen zaiola, eta ez irakurle arruntei. Baina hau eztabaida luzea da hemen azaltzeko...

Zumaiako liburutegira ere sarritan joaten zara. Irakurtzen al dituzu etxera eramandako liburuak?

Bai, nahiz eta ondoren liburu gehienak berandu itzuli. Irakurri nahi nituzkeen liburu guztiak ezin ditut erosi, bestela etxetik botako nindukete. Beraz, liburutegiak idazle berriak eza-gutzeko aukera ematen dit, eta gustuko ditudan idazle askoren liburuak irakurtzeko aukera.

Liburu asko utzi al dituzu 2. eskuko azokarako? Zein?

Etxekoak gustura geratu dira liburuak ditudan armairuari astindu ona eman diodalako. Kaxa handi bat liburu utzi dut, on ustean erositako liburu asko (Harkaitz Cano, Stephen King eta antzeko idazleekin), eta bikainak diren baina errepikatuta nituen liburu klasi-ko batzuk (Dracula, Moby Dick eta antzekoak). Nire beldurra da kaxa berriz bueltan ekarriko dudala, azokan erositakoekin beteta.

Zer egin daiteke baleike.com-etik literaturazetasuna pizteko?

Julene Azpeitia lehiaketak beti izan duen arazo bat izan da ipuin bikainak saritu diren arren, ipuin horiek gero



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatua • Aseguruak
Finke Administrazioilea

txomin aguirre-4, behe
20.750 zumala (gipuzkoa)
E-mail: rjazu@euskalnet.net


Tel. 943 862651
Fax: 943 862748



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

*“Badirudi euskaraz
argitaratzen den
literatura goi mailako
publikoari zuzentzen
zailoa, eta ez irakurle
arruntei”*



oso jende gutxi irakurtzen dituela. Udalak argitaratzen du, baina ez da behar bezala zabaltzen. Baleike.com-ek hori eskaini lezake, nahi duenarentzat eskuragarri jarri ipuin horiek guztiak Interneten. Bertso eskolak antolatutako bertsopaper lehiaketaren kasuan egin dugu, irabazlearen bertsoak jarri, eta jende askok hartu ditu bertsoak bertatik etxean irakurtzeko.

Aurten 2 zumaia besterik ez zarete aurkeztu... Zer egingo dugu datorren urtean 5 izan daitezen? 5 ere gutxi da. Zumaian oso ondo idazten duen jende asko dago. Ikusi besterik ez dago aurreko urteetako irabazlearen zerrenda, edo antolatu diren literatura tailerretako parte-hartzea. Pena da jende gehiago ez animatzea. Udalak ahalegin berezi bat egin beharko luke

Zumaian dagoen gaitasun literario hori bultzatzeko, eta ez bakarrik lehiaketaren ikuspegitik.

Gure Zumaia. Zer du sobran? Eta faltan?

Aspaldian kultur mugimendu alternatiboa da faltan sumatzen dudana. Ia ez dago mugimendurik Udalak antolatutako ekitalditatik kanpo, eta dagoen gutxia beti-betiko jendeak egindako lanak dira. Gaur egun Baleike-k egindako gauza apurrak eta Arte eta Natur Taldeetaz gain, Zumaian apenas dagoen mugimendurik. Esango nuke lehen bestelako mugimendu bat zegoela, Gazte Batzordeak antolatutako ekintzak, antzerki taldea ere hor zegoen, eta festetan eta urtean zehar programa ofizialek kanpoko hainbat gauza antolatzen

ziren. Beste herrietan ere ikusten da horrelakorik: Azkoitian Matadeixen inguruan eratzen den mugimendua, Azpeitian Uztarria..., baina Zumaian horren falta sumatzen dut.

Zerbait idazten ari zara gaur egun? Ez zehazki. Ideia batzuk badituz buruan bueltaka, eta, egia esan, bati besteei baino buelta gehiago ematen nabil. Nire kasuan, ideia bat buruan oso landua dudan arte ez dut paperean ezer jartzen; beraz, ezin esan ezer idazten ari naizenik. Agian hemendik pixka batera jarriko naiz, edo ez.

Ipuina baino zerbait luzeagoa idazteko asmorik bai?

Gogoa, gaitasuna, patxada, denbora... Gauza asko behar dira horretarako. Denborak esango du.

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

ipuina



Sara

Sara Sanpelaion igotzen da. Beti 2. bagoian sartzen da, nirean, aurreko atetik. Arropetan bilduta, orain neguan, berobero, eta begiek aukeratuko eserlekuaren parean jarrita, banan-banan erantzten ditu, astiro, kapela hegaldun beltza, lepoko beroa, abrigua... Beti badu sorpresaren bat azpian: arropa berriren bat, edo...

—Aupa, Sara! —esango nioke gustura. Baina, oraingoz, begiekin baino ez diot hitz egiten. Egia esan, oraindik ez dakit nola izena duen ere. Sara da, ordea, niretzat.

Treneko atetik sartu eta ahalik hurbilen esertzen da, tokirik izanez gero. Batzuetan niri begira ere bai, trenaren aurrerabideari bizkar emanda. Orduan bai zoriona! Jarritakoan, Berria zabaltzen du. "Batasuna *desagertu* egingo dela esan du Espainiako fiskal nagusiak", titularrean. Hotz egiten du neguan Sanpelaioke geralekuan, eta ilun dago; hotz behatz fin horiek egunkariaren paper zuriari eusteko; ilun negu beltzean berriak fundamentuz irakurtzeko. Trenean bai: trena epel dago eta nahikoa argi badago. Trenean bai, bero eta argi, Sara igoz gero.

ad

**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala
Taberna
Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

**ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA**



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Berria-ri helduta, azkar pasatzen ditu orriak, tras-tras-tras, inon bereziki geratu gabe, zein eta ez duen zerbait deigarrik aurkitzen. Normalean, Zumaiara iritsi bitartean astia ematen dio egunaren berri izateko. Eta orriak pasatzen dituen bakoitzean nik usna egiten dut, lurrin-usain freskoa olatuka noiz iritsiko.

Nik ez daukat egunkaririk, ezta entretenimendurik ere, Sarari begiratzea besterik. Ahal izanez gero, aurrez aurre, disimulurik gabe; baina begiak orrien gainetik jasotzen dituenen... Bion begiradak teinkatzen direnean... Orduan, betaurrekoen ertzetik, zaintzen dut zeharka.

–Asier naiz. Usurbilgoa. Eta zu? –esan diot, baina neure buruan oihartzun egin eta ito dira hitzok, ezpainetatik jaio baino lehen. Burukoekin biziko bagina, egia bihurtzerik bagenu...

Lehen hiru jarleku atzerago jartzen nintzen, bagoi berean, baina pixkanaka, Sara beti atetik gertu esertzen dela ikusita, ate ondora hurbildu naiz. Eta Zarautzen sartzen denean, alboan jarritz gero, zerua da Sara.

Geltokira iristeko gutxi falta denean, egunkaria tolestu, zutitu eta arropak jantziko ditu, azkar, presaka. Beste bidaiariak atera arrimatzen hasten direnean, han joango da Sara, eta ni atzetik. Atzean jarriko natzaio, bizkarraldean, eta sudurra lepotik ahalik eta gertuen jarriko diot, lurrin freskoa usaintzeko. Jendearen oldeak olatuan aterako gaitu.

Gaur bai. Gaur atzetik jarraituko diot. Gaur ez dut egingo eskuinaldera, lantokira, Egurkora. Gaur atzetik joango natzaio, orpoz orpo, uberran atzetik, itsas kiroldegitik aurrera. Gaur jakin beharra daukat nora joaten diren urrats airoso horiek Gernika parkean barrena, goizeko ordu beltzetan. Gaur ez dut buelta emango, atzo egin nuen bezala.

Asier



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406



- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Amaiako Plaza
Tel. 943 14 31 35

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330



Ingeleseko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970



BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

amabirjina eta haurra parrokia

ISMAEL MANTEROLA

S. Pedro Parrokian Iparreko atearen aldamenean dagoen nitxoan dago gaur egun Amabirjina eta haurraren eskultura.

Ederra da egurrezko taila hau, bai bolumenei begira, bai pintura kontuan hartzen badugu.

Ez da erraza data zehatza ematea; beraz, ez dakigu ziur zein garaitan egin zuten. Amabirjinaren okerdurak, irudia (itxura duen ardatzaren arabera dago egina), aurpegiak eta ileak azken gotiko-ko Flandesko egiteko erak adierazten ditu, hau da, XV. Mendekoa; baina umearen irudia, Amabirjinaren soinekoaren behealdeko tolesturak eta duen pinturak antza handiagoa dute XV. mende bukaera edo XVI. mende hasierako Espainian egindako irudiena.

Horregatik, bi mundu hauen arteko sintesiko irudia izan daiteke, S. Bernaberen kaperako erretaula bezala.

Irudiak udare forma du; behe partean goian baino bolumen gehiago, alegia, eta Amabirjinaren jarrerak umea sostengatzeko egiten duen lanaren ondorio dela dirudi. Haurraren irudia oso ondo markatuta dago Amabirjinaren ezkerreko eskuak sostengatzen duen soinekoaren



tolesturaren bidez. Ardatz bertikal horrek ikuslea umearengana bidaltzen du eta orduan ikusten dugu liburua esku artean duen Kristo haurra.

Liburua erakusten duten Kristo umearen irudiak ugariak dira arte gotikoan. Maria, Kristoren sostengatzaile da, baina Kristok erlijioaren oinarria den

liburua, Ebanjelioa, erakusten dio ikusleari, bai bere bizitzaren laburpena dela adierazteko, baina baita salbazioaren bidea delako ere.

Edertasun ideala du Amabirjinaren irudiak, errealitatetik kanpo dagoen pertsona dela azpimarratzeko. Edertasun fisikoak eta espiritualak bat egiten zuten arte gotikoan eta horregatik garai horretako irudiak aurpegi luzatuak eta begi zabalak izaten dituzte.

Azkenik, irudiaren edertasunaren beste osagaia polikromia da. Pintura eta tailaren arteko egokitasuna ez da erraza izaten eta sarritan pintatu gabe uzten zituzten dirurik ez zeukatelako edo pintoreak eta eskultoreak ezin izan zutelako bat egin (ez baitira pertsona bera).

Zurrezko irudiak pintatzeko prestatu egin behar ziren, ez baitzen ohikoa zuzenean egur gainean pintatzea. Igeltsu geruza fina eman ondoren aurpegia eta eskuak (edo gorputzeko beste zatiak) pintatzeko prest zegoen. Baina arropak pintatzeko beste produktu batzuen geruzak eman behar zizkieten urrezko xaflak onar zitzaten. Urreztatzea ere ez da lan makala eta gainean pintura ematea eta azpiko urrea azalaraztea ere trebetasun handiko pintoreen lana eskatzen zuen.



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetaarako departamentua

ZINE FORUM

otsailak 24, osteguna, gaueko 10:15ean

El último beso

Zuzendaria: Gabriele Muccino **Aktoreak:** Stefano Acorsi, Giovanna Mezzogiorno, Stefania Sandrelli

Heldutasunera iristeko beldurra, zahardadera heltzeko beldurra... Pelikulako pertsonaia guztiek bizi diren aroan geldirik egon nahiko lukete edo atzera egin; badirudi beti gazte dela pelikulako pertsonaia guztien leloa. Batzuek herriatik ihes egin eta kanpora nahiko dute irten abentura bila; besteak gaztetako amodio bila ibiliko dira; protagonistari beldur emango dio gizon ezkondua izatea eta aitasunak ekar liezazkiokeen erantzukizunak...

Film korala da, baina, nahiz eta amodioaren inguruan dabilen pertsonaiak adin oso desberdinetakoak izan, Gabriele Muccino zuzendari gaztea gehien kezkatzen duen kasua heldutasunera iritsi nahi ez duen protagonistarena da. Horretarako, gaur egungo Europako bikoteen joeretan oinarrituko da: gurasoen etxetik gero eta beranduago irten, gero eta zaharrago ezkondu, gero eta dibortzio gehiago... Muccinoren ustez, Peter Pan-en sindromea gero eta hedatuago dago Europan. Eta hori guztia maisuki erakusten digu zuzendari italiarrak, izugarri ondo nahastuz komedia eta drama, elkarriketa biziak erabiliz eta aktoreak bizitzan bezain natural ager daitezen lortuz. Aurrerantzean oso kon-tuan hartu beharreko izena: Gabriele Muccino.



martxoak 10, osteguna, gaueko 10:15ean

Casa de los babys

Zuzendaria: John Sayles **Aktoreak:** Daryl Hannah, Maggie Gyllenhall, Marcia Gay Harden

Sayles-ek, betiko moduan, nahi zuen filma berak nahi bezala egin du. Oraingo honetan, semetzat edo alabatzat hartzeko haurrak Hego Ameriketatik Estatu Batuetara eraman nahi dituzten sei emakumeren istorioetan oinarrituko da.

Emakume horien ikuspegitik dago kontatuta pelikula: ama ezkongabe bat, ezkon bizitzan arazoak dituen aberatsa, erditzean haurra galdu zuena... Sei emakume, sei arazo. Saylesek, betiko moduan, gaia ondo ezagutzen duela erakusten du, bai gidoia idaztean, baita filma zuzentzean ere, eta, horrela, emakumeen psikologia desberdinetan sakontzeaz gain, haurren etxe horietan zer gertatzen den ere erakutsiko digu: burokrazia, ustelkeria... Pixkanaka, emakume bakoitzaren arazoak ezagutzen joango gara eta, horrela, sei egoera desberdin aztertzerakoan ikuslearen ezagutza izugarri aberastuko da. Esan gabe doa: emakumeen antzezlan txapela kentzekoa da. John Sayles handia dute gidari, jakina.



GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Terribera 9 - 20750 ZUMAIA • Tel. 943 861 191

OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

EGOKI

Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

BEDUA
ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA

-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMAELEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

agenda

ERAKUSKETAK

Otsailaren 11tik 13ra BIGARREN ESKUKO LIBURU ETA DISKA AZOKA Baleike Kultur Elkartek antolatuta.

IRTEERAK

- TURISMO BULEGOTIK: 943-143396.
- Otsailaren 26an: ORREAGA-DONEJAKUE BIDEAREN HASIERA.
- Martxoaren 12an: GORLIZ-BAKIO.
- MUSIKA IRTEERA: Martxoaren 4ean, Arriagara: Lyongo Operako Balletaren ikuskizuna: Carmen eta Petit Mort.

DEIALDIAK

- ZUHAITZ EGUNA: Natur taldeak antolatuta, otsailaren 17tik 19ra: hitzaldiak eta irteera.
- ZUMAIKO XI.MENDI ASTEA: martxoaren lehen hamabostaldian, mendiko ikusentzutekoak.
- SANTELMOAK 2005: Antolaketa bilera, otsailaren 25ean, 7etan turismo bulegoan.

- ARGAZKI AUKERAKETA 2005: argitalpenetarako argazkiak lortzeko deialdia egiten diogu zaletu guztiei. Lanak aurkezteko epea, martxoaren 31a. Oinarriak kultur etxean.

- Martxoan KORRIKA KULTURALA: zinema, Korrika Txikia, magia eta bertso ikuskizunak, etab. (ikusit egitaraua) KORRIKA 2005 martxoaren 16ean Zumaian!

IKASTAROAK

- INTERNET – kzgunean 943-862866.
- 20 ORDU: Interneten hasteko ikastaroa: otsailaren 7tik 18ra, 21etik 4ra eta martxoaren 7tik 18ra.
- MINTEGIAK: Interneteko praktika interesgarriak: Asteburu bat Euskadin, Fagor gida gastronomikoa, Zure aseguruak kontratatua, Zure semea babestu, Eustat, Etxebizitza aurkitu, Outlook express eta Messenger.
- KUTXAren GELAK: sukaldaritza, tai-chi, eskuko lanak, photoshop... informazioa www.begira.com.

OTSAILA

- 11tik 13ra Alondegia aretoan, Baleike kultur elkartek antolatuta, Bigarren eskuko liburu eta diska azoka.
- 11, ostirala 19:00etan diapositiba emanaldia Asiako hego-ekialdean tandem bizikletaz.
- 17, osteguna 17:30ean, haur liburutegian Ipuinkontaketa saioa MARILUREK 5.722.630 ipuin dakizki.
- 18, ostirala 22.00etan, antzerkia: LA BALDUPA TEATRO: Catacrack.
- 24, osteguna 22:15ean zineforum saioa El último beso.

MARTXOA

- 3, osteguna 22:15ean Korrika Kulturalaren zine emanaldia.
- 4, ostirala Bilbora irteera Arriaga antzokira: Lyongo balletaren ikuskizuna Carmen eta Petit Mort.
- 5, larunbata arratsaldean Kofradian, Bertso-Magia saioa Korrika Kulturalaren barne.
- 10, osteguna 22:15etan zineforum saioa Casa de los babys.
- 11, ostirala 22:00etan antzerkia Las mujeres de verdad tienen curvas..
- 12, larunbata 18:30ean Foronda kultur etxean, Emakumearen Eguna dela eta, kontzertua.
- 13, igandea 12.00etan Haur antzerkia GU GEU taldearekin: Ipuin musikala.



Korrika kulturala

Martxoaren 16an pasako 14. Korrika Zumaitik. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatuko dira herrian Korrika Kulturalaren barne: zine saioa, magua eta bertso ikuskizunak, Korrika txikia, etab. Denok Korrikarekin!

- 17, osteguna 22:15ean zineforum saioa Silver city.
- 18, ostirala 22.30ean HIRU TRUKU Nafarroako kantu zaharrak.
- 31, osteguna 22:15ean zineforum saioa Como una imagen.



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 943 143224



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



AUTO-ESKOLA



ZUMAI A

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



taberna

Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083

ILERIK GABE, ASKOZ HOBE!

Lasai ibili... noiznahi: hondartza, kirola, medikuarengana bisita, festak...

ORAINTXE DA UNE APROPOSA!!



Jar zaitez **esperientziadunen** eskuetan

Informatu eta eskatu aurrekontu pertsonalizatua! Proba doan!

Coro Prieto
ESTETIKA ZENTROA



Bonifacio
Etxegarai, z.g.
tel. 943 86 13 22

S DORNUTEGI

SUKALDEKO ALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea Tel: 943 86 20 51



Sukalderako hornikuntza
diseinuak

Lanen zuzendaritza

Edozein sukaldetara
moldaturiko diseinu bereziak

Kalitate-prezioan parekorik ez

www.dornutegi.com